

BADALAB HIZKUNTZA BERRIKUNTZAKO PARTZUERGOA

Laborategiaren jarduna gidatuko duen le mari ekarpena egingo dioten eta bere programa publikoa zabalduko eta aberastuko duten sormen eta mediazio bekak ematea. 2025eko deialdia.

Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Partzuergoaren Batzorde Betearazleak, 2025eko maiatzaren 29an eginiko bileran, ondoko erabakia hartu du:

2025eko martxoaren 27ko Gobernu Batzordeak hartutako erabaki bidez onartu ziren, alde batetik, *“Laborategiaren jarduna gidatuko duen le mari ekarpena egingo dioten eta bere programa publikoa zabalduko eta aberastuko duten sormen eta mediazio bekak”* emateko oinarri arautzaileak eta, bestetik, beka horien 2025. ekitaldiko deialdia. Halaber, 30.000 euroko gastua baimendu zen deialdi horretarako, 1 480.02.02 2025 aurrekontu sailaren kargura. Erabaki horren xehetasun guztiak apirilaren 9an argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Badalab-eko webgunean.

Oinarri arautzaileetan ezartzen denez, laguntza hauek norgehiagoka jardunbideaz eman dira, eta Badalab-en Idazkaritzaren eginkizuna izan da dirulaguntzak emateko prozeduraren instrukzioa. Era berean, kontuan hartuta laguntzak jaso ahal izateko baldintzak eta betebeharrak, baita horiek baloratzeko ezarritako irizpideak ere, 7. oinarrian aurreikusitako Hautaketa Batzorde Mistoak deialdiaren esleipen proposamena prestatu du, eta Batzorde Betearazleari helarazi dio.

Izan ere, 9. oinarri arautzailean ezarritakoarekin bat etorritik, Batzorde Betearazle honi dagokio deialdia erabakitze eskumena. Bestalde, oinarri horretan bertan ezartzen da deialdiaren ebazpena Badalab-en webgunean argitaratuko dela eta, gainera, banan-banan jakinaraziko zaiela interesdunei ere bai.

Horrenbestez, Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Batzorde Betearazleak, presidenteak hala proposatuta eta eztabaidatu ondoren,

ERABAKI DU

Lehenengo.- Ematea *“Laborategiaren jarduna gidatuko duen le mari ekarpena egingo dioten eta bere programa publikoa zabalduko eta aberastuko duten sormen eta mediazio bekak”*, 2025. urteko deialdiari dagozkionak. Horretarako, ondorengo zerrendan azaltzen diren onuradunen alde 30.000 euro xedatuko dira, zehazten diren zenbateko partzialengatik eta aurrekontuko kontu-sail honen kargura:

Onuraduna	Proiektua	Puntuak	Beka (€)	Kontu-saila
Mikel Ayllon Corral	Hegan egiteko gogo da	94	10.000€	1 480.02.02 2025
Ainara Hernandez Esnal	Hizkuntza transmititzeko eredu berriak	90	10.000€	1 480.02.02 2025
Garazi Albizua Castelao	Xantza	83	10.000€	1 480.02.02 2025

Bigarren.- Jarraian azaltzen den ordezkoen zerrenda osatzea, aurreko taulan jasotako onuradunen batek uko edo atzera egingo balu, dagokion ordenan osatzeko hutsune hori:

Eskatzailea	Proiektua	Puntuak
Daniel Valtueña Martinez	Trans pieza kolektiboa	41

Hirugarren.- Baztertzea jarraian azaltzen den proposamena, oinarrien 8.3 atalak xedatzen duenari jarraikiz, gutxienez 40 puntu lortu ez dituelako.

Eskatzailea	Proiektua	Puntuak
Zigor Goikoetxea Retegi	Aitzakiak	25

Ebazpen hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuek ebazpen honen aurka ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA aurkez dezakete Donostiako Administrazioarekiko Auzietako epaitegietan, argitalpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, interesatu partikularrek aukera dute horren aurretik BERRAZTERTZEKO HAUTAZKO ERREKURTSOA aurkezteko Batzorde Betearazle honi, argitalpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzearen berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtsorik aurkez daiteke.

Errenteria, 2025eko maiatzaren 29a.- Iker Nocedal Bustamante, Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Partzuergoaren idazkaria.